c) Eman beharreko laguntza teknikoa eta lankidetza ematea, erregistroen antolakuntzaz eta informatizazioaz.

Bosgarrena.- Hitzarmenean esku hartzen duten administrazioek elkarri informazioa emango diote interkomunikazio sistemen bateragarritasunari eragin diezaioketen erregistroak informatizatzeko neurriez, eta, hala badagokio eta bere garaian, elkarren erregistroen bateragarritasun informatikoa eta koordinazioa bermatuko duen lankidetza hitzarmena formalizatuko dute.

Seigarrena.- Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, EHAAn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori berez eta besterik gabe beste lau urterako luzatutzat emango da, esku hartzen duten administrazioetako batek espresuki adierazi ezean hitzarmena deuseztatu egin nahi duela, gutxienez iraungitze data baino bi hilabete lehenago.

Hitzarmenaren indarraldia arrazoi hauengatik ere buka daiteke: a) esku hartzen duten administrazioen arteko adostasunez, eta b) horietakoren batek bere kasa hartutako erabakiz, frogatzen bada beste alderdiak, era larrian, ez dituela bete bere gain hartutako betebeharrak.

Hitzarmenaren formalizazioa eta iraungitzea EHAAn, ALHAOn eta Legutioko Udalaren iragarki taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honen interpretazio eta aplikazioan sor litezkeen zalantzak eta auziak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak ebatziko ditu izaera exekutiboz. Haren erabakien aurka administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo ahal izango da.

Eta agiri honetan jasotakoarekiko adostasuna erakusteko, eta behar den tokian hala jasota gera dadin eta eragin beharreko ondorioak eragin ditzan, alderdiek jatorrizko bi ale izenpetzen dituzte, goiburuan jarritako toki eta egunean.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua, IDOIA MENDIA CUEVA.– Legutioko alkate-lehendakaria, JON IÑAKI LEZA DE LA LLERA.

Legutio, 2011ko azaroaren 17a.– Alkatea, JON IÑAKI LEZA DE LA LLERA.

c) Prestar la asistencia técnica y colaboración necesaria sobre organización e informatización de los Registros.

Quinta.- Las Administraciones intervinientes se comprometen a comunicarse mutuamente cualquier medida de informatización de los Registros que pueda afectar a la compatibilidad de los sistemas de intercomunicación y a negociar y, en su caso, formalizar, en su momento, el correspondiente convenio de colaboración que garantice la compatibilidad informática y la coordinación de sus respectivos Registros.

Sexta.- El plazo de vigencia del presente convenio es de cuatro años, contados a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Dicho plazo se entenderá automáticamente prorrogado por otros cuatro años salvo denuncia expresa de alguna de las Administraciones intervinientes realizada con una antelación mínima de dos meses a la fecha de extinción.

También podrá extinguirse la vigencia del convenio por: a) mutuo acuerdo de las Administraciones intervinientes, y b) por decisión unilateral de una de ellas, en caso de incumplimiento grave acreditado, por la otra, de las obligaciones asumidas.

Tanto la formalización del convenio como su extinción serán objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, en el BOTHA y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Legutio.

Séptima.- Las dudas y controversias que puedan surgir en la interpretación y aplicación de este convenio serán resueltas, con carácter ejecutivo, por la Consejera de Justicia y Administración Pública, cuyas resoluciones serán recurribles ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Lo que, en prueba de conformidad, y para que así conste y produzca efectos donde proceda, lo firman en dos ejemplares originales las personas interesadas en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

La consejera de Justicia y Administración Pública, IDOIA MENDIA CUEVA.– El alcalde-presidente del Ayuntamiento de Legutio, JON IÑAKI LEZA DE LA LLERA.

Legutio 17 de noviembre de 2011.– El alcalde, JON IÑAKI LEZA DE LA LLERA.

## URKABUSTAIZ

**6625**

**Behin betiko onartzea hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren zerga arautzen duen ordenantza.**

Udalbatzak 2011ko urriaren 6an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion zerbitzuen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari, 2012rako; hiri hondakin solidoak bildu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasari dagokion eranskinean. Hartutako erabaki hori jendaurrean jarri zen, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean 2011ko urriaren 14an (zenbakia: 120) argitaratuta. Jendaurreko epea bukatu eta batere erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Foru Arau horren 16.4 artikuluan aurreikusitakoa betez, aipatutako zerga ordenantzaren testu aldatua ALHAOn argitaratzen da; argitaratu eta hurrengo egun baliodunean sartuko da indarrean. Hau da ordenantza, hitzez hitz:

## URKABUSTAIZ

**6625**

**Aprobación definitiva de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por prestación del servicio de recogida y eliminación de residuos sólidos urbanos.**

Transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo adoptado por la Corporación Municipal Plenaria, en la sesión plenaria ordinaria celebrada en fecha 6 de octubre de 2011 y publicado en el BOTHA número 120, de fecha 14 de octubre de 2011, relativo a la aprobación inicial de la modificación, para el ejercicio 2012, de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios y realización de actividades administrativas, en su anexo relativo a la Tasa por prestación del servicio de recogida y eliminación de residuos sólidos urbanos, y no habiéndose presentado, dentro del mismo, reclamación alguna, dicho acuerdo, hasta entonces provisional, queda elevado a definitivo, de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 16.3 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 16.4 de la citada Norma Foral se procede a la publicación del texto modificado de la referida Ordenanza Fiscal, que surtirá efectos a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOTHA, cuyo contenido literal es el siguiente:

**ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA: HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA DEUSEZTATZEA (URTEKO KUOTA, 2012KO EKITALDIA)**

| ERABILERAK | TARIFAK |
|---|---|
| ETXEBIZITZAK | 58,52 euro |
| PROFESIONALEN LOKALAK | 58,52 euro |
| DENDAK | 116,94 euro |
| ZERBITZUETARAKO LOKALAK. | |
| ALTUBE OSTATUA | 3.524,84 euro |
| GUARDIA ZIBILAREN KUARTELA: | 473,56 euro |
| AITA PAULDARRAK | 140,08 euro |
| LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUA | 140,08 euro |
| KARITATEKO AHIZPAK (ZAHARRA) | 140,08 euro |
| ZARATEKO KARMELDARRAK | 140,08 euro |
| MARKINAKO APAIZ ETXEA | 140,08 euro |
| SARRIAKO ATERPEA | 140,08 euro |
| HIPIKA | 116,72 euro |
| DEPORTIVO ALAVÉS-EN INSTALAZIOAK | 116,72 euro |
| OSTALARITZA - KIROLAK | |
| TXOKOAK | 163,78 euro |
| TABERNA KAFETEGIAK | 163,78 euro |
| JATETXEAK, SARDEXKA 1 | 280,82 euro |
| JATETXEAK, 2 SARDEXKA | 350,82 euro |
| OSTATUA – NEKAZARITZA TURISMOA | 143,84 euro |
| HOTELA | 143,84 euro |
| ADINEKOEN EGOITZAK, 20 plaza arte | 143,84 euro |
| ADINEKOEN EGOITZAK, 21-40 plaza | 241,14 euro |
| ADINEKOEN EGOITZAK, 40 plazatik gora | 338,44 euros |
| KIROL ZONA | 484,50 euro |
| KONTZEJUEN GIZARTE ETXEAK | 104,04 euro |
| INDUSTRIA | |
| 500 m² arte | 129,40 euro |
| 501-1000 m² | 473,44 euro |
| 1,001-3,000 m² | 725,54 euro |
| 3,001-10,000 m² | 1.088,34 euro |
| 10,000 m² baino gehiago | 1.451,14 euro |

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2011ko azaroaren 25a.– Alkate-lehendakaria, JOSÉ ANTONIO LÓPEZ GOITIA.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS: TASA POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA Y ELIMINACIÓN DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS (CUOTA ANUAL EJERCICIO 2012)**

| USOS | TARIFAS |
|---|---|
| VIVIENDAS | 58,52 euros |
| LOCALES PROFESIONALES | 58,52 euros |
| COMERCIOS | 116,94 euros |
| LOCALES DE SERVICIOS | |
| HOSTAL ALTUBE | 3.524,84 euros |
| CUARTEL DE LA GUARDIA CIVIL | 473,56 euros |
| PADRES PAULES | 140,08 euros |
| INSTITUTO DE F. PROFESIONAL | 140,08 euros |
| HH. DE LA CARIDAD (VIEJO) | 140,08 euros |
| CARMELITAS DE ZARATE | 140,08 euros |
| CASA CURAL DE MARKINA | 140,08 euros |
| ALBERGUE DE SARRIA | 140,08 euros |
| HÍPICA | 116,72 euros |
| INSTALAC. DEPORTIVO ALAVÉS | 116,72 euros |
| HOSTELERÍA - DEPORTES | |
| TXOKOS | 163,78 euros |
| BARES CAFETERÍAS | 163,78 euros |
| RESTAURANTES 1 TENEDOR | 280,82 euros |
| RESTAURANTES 2 TENEDORES | 350,82 euros |
| HOSPEDERÍA - AGROTURISMO | 143,84 euros |
| HOTEL | 143,84 euros |
| RESIDENCIAS PERSONAS MAYORES HASTA 20 plazas | 143,84 euros |
| RESIDENCIAS PERSONAS MAYORES DE 21 A 40 plazas | 241,14 euros |
| RESIDENCIAS PERSONAS MAYORES DE MÁS DE 40 plazas | 338,44 euros |
| ZONA DEPORTIVA | 484,50 euros |
| CENTROS SOCIALES DE LOS CONCEJOS | 104,04 euros |
| INDUSTRIA | |
| Hasta 500 m² | 129,40 euros |
| De 501 a 1,000 m² | 473,44 euros |
| De 1,001 a 3,000 m² | 725,54 euros |
| De 3,001 a 10,000 m² | 1.088,34 euros |
| Más de 10,000 m² | 1.451,14 euros |

Lo que se hace público para general conocimiento.

Izarra, a 25 de noviembre de 2011.– El alcalde–presidente, JOSÉ ANTONIO LÓPEZ GOITIA.

## ESKUERNAGA

**6599**

### 2012ko aurrekontua behin betiko onartzea

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 169.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onartzen da 2012ko aurrekontua, ez baita inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu hasierako onarpena ematen zion erabakiaren aurka. Hona hemen laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA

| KAPITULUA | EUROAK |
|---|---|
| I Langile gastuak | 135.000 |
| II Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa | 201.100 |
| III Finantza gastuak | 10.600 |
| IV Transferentzia arruntak | 31.000 |
| GASTU ARRUNTAK (I-IV BATURA) | 377.700 |
| VI Inbertsio errealak | 1.475.000 |
| VIII Finantza-aktiboak | 6.000 |
| IX Finantza-pasiboak | 15.000 |
| **Gastuen egoera, guztira** | **1.873.700** |

## VILLABUENA DE ÁLAVA

**6599**

### Aprobación definitiva presupuesto 2012

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 169.1 del Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, que aprueba el texto refundido de la Ley reguladora de las haciendas locales, y no habiéndose formulado reclamaciones ni observaciones de ningún tipo contra el acuerdo de aprobación inicial del presupuesto del ejercicio de 2012, dicho presupuesto queda definitivamente aprobado con el siguiente resumen por capítulos

ESTADO DE GASTOS

| CAPITULO | EUROS |
|---|---|
| I Gastos de personal | 135.000 |
| II Compra de bienes corrientes y Servicios | 201.100 |
| III Gastos financieros | 10.600 |
| IV Transferencias corrientes | 31.000 |
| GASTOS CORRIENTES (SUMA DE 1 A 4) | 377.700 |
| VI Inversiones reales | 1.475.000 |
| VIII Activos financieros | 6.000 |
| IX Pasivos financieros | 15.000 |
| **Total estado de gastos** | **1.873.700** |